



ENKORE taldearen hirugarren diskoa 2015eko ekaina eta uztailen Tío Pete-n Jose Lastrak, Javi Peñak eta Borja Murok grabatu dute. Beard Studios-etan nahastu dute Peñak eta Murok. Ekoizpen lanak Urtzi Izak eta Jose Lastrak egin dituzte Beard Studios-etan. Masterizazioa Estanis Elorzak egin du Doctor Master estudioan. Diseinua Borja Villarejok eta Ander Igleziasek egin dute (Ganbara). Musika Enkore taldearena, letrak Xabi Hoo-renak, baina “Espero dena” abestiaren letra Oihana Bartrak idatzi du.

Enkore (Errekalde auzoa, Bilbo, 2009) taldearen “E” diskoa zera da: melodia, dantza, leloak, rock-core melodikoaren sustriak, armonien bizipoza, poparen samurtasuna, danceren eromena... eta hirugarrena.



BIHOTZ EZKUTUA

Bada Bilbotarron gauetan ereserkiz jantzita, gura barik, gertakari bihurtzen den erritmoa, argien distira gogaikarriak dakarrena: “Zenbat gera? 4, 1, 3, 5, 7...” Maiz, Lertxundiren kantu honek, amaiera iragarri nahian, biren arteko kontu soilari hasiera eskaini ei dio. Une horretan josi ala amore eman. Bihotzeko josturak ezkutatu ordu txikien jostun garenon doinua da hauxe. Enkore taldearen aurreko diskoetan egon daitekeen kantu soil bat dirudi, osagai guztiekin: riff melodiko ahaltsua, estrofa landuak, lelo indartsua eta Xabiren ahotsa “marxta” honen zuzendari... Hala ere, berau sortzeko prozesuan esperimendazioan murgildu gara blues klasikotik edan dezakeen irudiei soinu ezin aktualagoa emateko.

ZERUA

Madalena eguna atzean, Bermeoko portuan argitu zigan. Uretara bota genituen zentzu bako gauak; eta honela, sama barik, gure aurrean aurkezten zitzaigun iraultza koloreko geroa ehuntzeari ekin genion. Geroan izaro dugu gidari, izaro dugu izar gorri. Bizitza aldaketa da, eta aldaketa bera musikaren funtsa. Hasiera batean taldeak estilo sutsua jorratzen zuen, gordinagoa agian, beti ere melodía protagonista izanik. Gaur egun, ordea, estiloak ez gaitu jada mugatzen, melodiak baizik. Bera da gure abiapuntu eta helmuga, gure leitmotiv bakarra, eta kantu hau da pentsaera berri honen isla argia.

ORTZADARRA

Ortzadar izatera kondenatuta nago. Nire izaeraren bipolaritasunaren erruz, edo honi esker, ez nago ziur. Nolanahi ere, Erromako zubia aski ondo ezagutzen dut, Erroman sekula santan egon barik gainera. Eta aitortzen dut: biziki maite dut ortzadarrak sortzen direneko momentu horiek, nahiz eta jakin, horretarako, halaberharrez euria egin behar duela. 2000ko hamarkadako rockaren pizkundeak hainbat talde kuttun ekarri zituen berarekin, gaur egun “indie” etiketa jasotzen dutenak (estiloak, berriz ere). Sentimenduak transmititzeak ez du talka egin behar kantuaren jostagarritasun, erritmo eta dinamikarekin. Kantu honek mugimendua transmititzen du, paisaia anitzak marraztuz stonerretik dantzarainoko bidean.

MILA HERIOTZA TXIKI

Mireia Sallarès artistaren “Las muertes chiquitas” lan transdisiplinarrean dute berbak inspirazio iturri. Emakume-orgasmoa, Rock n’rolla eta bakardadea elkarrenganako interakzioan jolasten dira hemen, eta abestian zehar bakoitzaren izaera difuminatuz doa azkenean gauza bera bailitza. Orgasmoen alderik bortitzena eta rock n’ rollaren erotismoa plazaratze saiakera da hau; eta, bakardade/konpainia dikotomiak plaza hesitzen duten limiteak zehaztuko ditu. Kanta zuzena da. Gure itsasargietako bat AEBetako 90. hamarkadako rocka izan da beti, artificio gutxikoa. Riffaren eta ahotsaren arteko elkarriketa sortu dugu, momentu bakoitzean elementu minimoak azalduz, entzuleak gurekin batera entsegu lokalean dagoela sentituzeko.

V

“V for Vendetta” eleberri grafikoa maisulana da, baita, nire aburuz, zinerako egin zuten egokitzaipena ere. 16 urterekin ikusi nuen filma lehenengo aldiz, eta ordutik aurrera azaroaren 5ero saiatu izan naiz Eveyren eta Vren istorioaz gozatzen. Aurreko azaroaren 5ean, pelikula amaitu bezain laster, disko berria bosgarren lekuan joango zen abestiaren lehenengo berbak idatzi nituen: “Hiria sutan da”... Zati hau jaio zen riff burlati batetik, ia haurren ukituarekin. Kantu indartsu batentzako arrazoi alailsua. Ganberroarena egin dugu, Rage Against the Machine pisutsu eta Electric Six taldearen garaje puntuen tartean.

GURE GAUA

Gau hartan zita berezia nuen, aspaldi nenbilen eguna noiz iritziko zain. Dantzarako gogoek beste edozer eklipsatzen zuten, eta euforiak gainezka egin zidan. Obligazioak alde batera, gau hura nolakoa izango zen irudikatu nuen buruan, baita kantu bihurtu ere, soinu banda jarri nion. Hurrengo egunean, etxera heldu eta ohean sartu aurretik, pozarren, jada idatzita nuen amaiera aldatu nuen: “Hauxe izan da gure gaua” idatzi nuen, eta hurrengo segunduan lo seko. Kimikari batek bezala bere laborategian, guk geure soinua berrasmatu nahi izan dugu, ohiko estiloetatik urrun dauden ñabarduretan blaituz. Gitarrek bidea irekiko die sintetizadoreei, baxuek osatuko dituzte melodia nagusiak, txaloekek kontrola hartuko dute. Asmoa, ordea, betikoa da, zirrara sortaraztea. Dantzarako gonbidapena.

NOMADA

Ezagutzen ez dudan horren beldur naiz, nire burbuilatik at dagoen oro arrotz egiten zait; horregatik ez naiz konfort eguneari adio esateko adina ausarta. Erosotasun honek deserosotasuna dakarkit egunerokotasunera, eta benetan eroso sentiarazten nautenekin edonora jongo nintzateke, birritan pentsatu barik. Ez nuke esango berarekin maitemindurik nengoenik, baina dena atzean utzi eta bere eskutik mundua zeharkatzeko gogo irrazionalak piztu zitzaizkidan elkarri musu eman genionean. Poparekin harreman estua izan dugu beti, baina dudarik gabe “Nomada” orain arteko gure ekoizpenik samurrena izan da. Hasieran arnas bat baino ez dena festa bihurtzen da azken konpasetan, letraren nora eza nolabait islatuz. Erritmo afrikarrak estreinakoz agertzen dira, The Clashesk zioten legez, gure musikak ere kanpora begiratzen duelako.

ESPERO DENA

Oihana Barta bertsolariak idatzi ditu kantu honen berbak. “Bada Bilbo Euskaldun bat, batzuei gustau edo ez gustau” esan zuen behin Oihanak. Enkore Bilbo Euskaldun horren parte gara, eta geuri bai gustau! Ohorea da disko honetan gure hiria eta gure hizkuntza hain esaldi xumean hain ondo islatu duen emakumearen kolaborazioa izatea. Gure kantu bati letra idaztea baino harago joatea eskatu genion Oihanari; berak benetan sentitzen zuen gai baten inguruan idaztea eskatu genion, eta gu, itsu-itsuan, mezu horren zabalzaile hutsak izango ginen. Beraz, espero dena kantatzen dugu guk, hainbat eta hainbat emakume euskaldun ez espero dena kantatzen dugu guk; aurretik sekula egin ez dugun baina hain beharrezkoa iruditzen zaigun emakumearen ikuspuntua mantenduz. Hirugarren diskoa talde batentzat garrantzitsuena dela uste dugu, bere soinuaren berrespena eta datorrenaren abiapuntua baita. Kantu honetan gudan ohikoa den errepika luze eta itsaskorra eraiki dugu, lau akorderen gainean. Baina azken hogeitau urteotako pop alternatiboaren ziztada jasota, gure DNA zirrarez, esperimenduz eta oktabadorez bustiz.

ISILTASUN OIHU BAT

Garzteon ezintasunaz ari gara abesti honetan, lapurtu dizkiguten ametsez, sentimenduez, baloreez eta, azken finean, nortasun faltak eragiten duen etorkizun lausoaz. Finean, gure etorkizunaz ari gara. Hamar istorio desberdin dakartzta diskoak, hamar nortasun desberdin. “Nor” hori aldakorra da kanturik kantu. “Isiltasun oihu bat” gure gaztaroko musikari pasealdia eman diogu, orain garena definitu zuten diskoek. Kontzesiorik gabeko rocka, lelo amorratuak...

HEGAN

Bilboko aratuste egun handian entsegu lokalean lotu ginen eta kantu instrumentala sortu genuen, ahots eta letra barik hasiera batean. Laurok elkarrekin parrandan irten ginen inauteriak ospatzera. Gau horretatik gogoratzen ditudan sentsazio kaleidoskopiarrak irudikatzea dute berbak helburu. Gau berezi batean sortutako abestia da, Bilbo erretzearen ingeles ereserki batek hordituta. Hau da gure esperimendu txikia, gure ekarpena zoramenari. Martzial erritmoak piztiaren antzeko riff bati oratuta, arnasa hartzeko une labur batek eramango gaitu alimaleko fuzz eta reverb-era.

Xabi Hoo: ahotsak
Urtzi Iza: gitarra, teklatuak
Aitor Gallastegi: baxua
Alvaro Olaetxea: bateria

baga **biga**
MUSIKA IDEIAK
 Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
 221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)

